



HIZTEGIA

Giza gorputza kanpotik. Zentzumenak

- **Astigmatismoa:** Ikusmenaren akatsa, kornearen eta kristalinoaren kurbadura irregularrak sortzen du.
- **Dastamena:** Zentzumen honi esker, substantzia kimiko disolbatuak antzematen dira, hala nola, elikagaienak.
- **Entzumena:** Soinuak entzutea ahalbidetzen duen gorputzaren zentzumena.
- **Hipermetropia:** Ikusmenaren akatsa da; gertu dauden objektuak ezin dituzte argi ikusi, irudia erretinatik haratago sortzen delako.
- **Ikusmena:** Gorputzaren zentzumen honi esker, objektuak antzematen dira argiaren ekintzaren bidez.
- **Miopia:** Ikusmenaren akatsa da; begitik distantzia batera kokatutako objektuen argi-izpiak erretina baino aurreragoko puntu batean fokatzen dira.
- **Nerbioa:** Nerbio-sistema zentralaren eta gorputzeko beste zati batzuen arteko bultzadak daramatzan nerbio-zuntz multzoa da; kordoi zuri forma du.
- **Oftalmologia:** Begien gaixotasunak sendatzen dituen medikuntzaren arloa.
- **Otorrinolaringologia:** Belarri, sudur eta laringearen gaixotasunak sendatzen dituen medikuntzaren arloa.
- **Ukimena:** Gorputzaren zentzumen honi esker, kontaktu-, presio- eta tenperatura-sentsazioak antzematen dira.
- **Usaimena:** Gorputzaren zentzumen honi esker usain eta substantzia sakabanatuak antzeman ditzakegu, hala nola: kea.